



Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia



Durangoko Merinaldearen
Amankomunazgoa
Mancomunidad
de la Merindad de Durango



DURANGALDEAK TRATU TXARREN ETA SEXU-ERASOEN BIKTIMEI ARRETA EMATEKO FORU-ZERBITZUA DAUKA

Pilar Ardanza Gizarte Ekintza Saileko foru-diputatuak, Oskar Zarrabeitia Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoko presidentek eta Rolando Isoird Berrizko alkateak sinatu dute tratu txarren eta sexu-erasoen biktimei arreta psikologikoa emateko zerbitzua aktibatzen duen hitzarmena; zerbitzu hori Durangaldean bizi diren pertsoneri zuzenduta dago.

Tratu txarren eta sexu-erasoen biktimei arreta emateko foru-zerbitzua lurralde osora hedatzen jarraitzen du Bizkaiko Foru Aldundiak. Gaur sinatu da lankidetzeta-hitzarmena Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoarekin eta Berrizko Udalarekin. Hitzarmen horrek zerbitzua aktibatzen du Durangaldean, hain zuzen ere udalerrri hauetan: Abadiño, Atxondo, Berriz, Durango, Elorrio, Garai, Iurreta, Izurtza, Mañaria, Otxandio eta Zaldibar. Esku-hartzearen edukia honetan datza: banakako laguntza psikologikoa, laguntza psikologikoko banakako tratamenduak eta psikoterapia eta artatutako kasuen jarraipena.

Hitzarmen honek erakusten du Bizkaiak apustu argia egiten duela tratu txarren eta sexu-erasoen biktimei arreta emateko zerbitzua hedatzeko. Izan ere, Aldundiak duen konpromisoa da ematen dituen zerbitzu sozialak mantentzea eta, egoera ekonomiko zaila gorabehera, hedatzea.

Foru programa horren deszentralizazioa dagoeneko egin da Lea Artibai, Enkarterri, Nerbioi eta Busturialdea eskualdeetan, eta datorren ekitaldian Arratiara hedatuko da.

Lankidetzeta-hitzarmen hau sinatzeak ez dakar inolako obligazio ekonomikorik Bizkaiko Foru Aldundiarentzat. Izan ere, Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa osatzen duten udalerrietan eta Berriz, Garai eta Otxandioko udalerrietan (azken bi horiek mankomunatutako gizarte-zerbitzuei atxikita daude) zerbitzua ematetik eratortzen diren gastuak programa garatzen duen administrazio-kontratu berezian ezarritako kopuruan aurrez ikusita daude eta horrek ordainduko ditu.

Bere aldetik, Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoak konpromisoa hartzen du behar bezala ekipatutako bulegoa aldundiaren eskura jartzeko, zerbitzu hori emateko. Halaber, konpromisoa hartzen du hitzorduen agenda kudeatzeko beharrezko administrazio-azpiegitura jartzeko. Berrizko Udalak, bere aldetik, Arreta Psikologikoko Zerbitzua ezin hobeto emateko, konpromisoa hartzen du behar bezalako koordinazio eta komunikazioa izateko bai Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoarekin, bai Bizkaiko Foru Aldundiko Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzuarekin.

Sinatu beharreko hitzarmena indarrean egongo da 2014ko apirilaren 1etik 2015eko abenduaren 31ra, eta isilbidez luzatuko da, urteka.

Lankidetzeta-idea da hitzarmenen ardatz nagusia, eta esanahi bikoitza hartzen du: alde batetik, Administrazioaren zereginak egin eta gauzatzeko tresna egokiak dira, eta, beste alde batetik, hitzarmenetako parte-hartze inplizitua agerian geratzen da, azpian dagoen interes publikoaren ondorioz, garatu beharreko jarduera helburu zehatz batzuei lotzen zaielako.

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak foru aldundiei eta udalei eman dizkie gizarte zerbitzuen arloko eskumenak. Beste alde batetik lege horrek berak udalek gizarte zerbitzuetan dauzkaten eskumenak zehaztu ditu 29. artikuluan eta Aldundiaren gizarte zerbitzuenak 30. artikuluan. Hitzarmen honen bidez arautzen den zerbitzua Aldundiaren gizarte zerbitzuen eskumenekoa da, Bizkaiko Foru Aldundiaren apirilaren 3ko 70/2012 Foru Dekretuan ezarri den bezala (horren bidez Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Saileko Araudi Organikoa onetsi zen). Beraz, eskerrak ematen dizkiegu BFARI eta Gizarte Ekintzako foru diputatuari arlo honetako eskumenak antolatzeke ahaleginak egitearren, horri esker zerbitzuak integralak izango baitira eta eskumena daukan erakundeak egingo baititu.

14 ordu astean

Arreta mankomunitateak Gizarte Zerbitzuen egoitzan emango da (Galtzaretan etxea, Durango) egun eta ordu hauetan: astelehenean 10:00etatik 14:30ak arte eta 15:00etatik 17:30ak arte; asteazkenean 8:00etatik 15:00ak arte. Batez beste egunean BOST hitzordu emango dira; saio bakoitzak ordubete iraungo du. Hitzarmenean ezarri da arreta gehienez 14 ordukoa izango dela astean. Horretarako ZUTITU erakunde profesional bat egongo da.

Zerbitzu honek onura hauek ekarriko ditu: arretaren intentsitatea areagotuko da (astean behin); saioak gehituko dira; zerbitzua beste talde batzuetara helduko da. Zerbitzua zabaltzea positibotzat jo dugu, hasieratik lehenetara eman baitzaio zerbitzuak lehen Mankomunitateak eta Berrizke egiten izan dutena hartzeaz gainera arreta hobea emateari, batez ere emakumei.

Beste alde batetik, zerbitzura bideratzeko prozedura gizarte-langileen taldeak egingo du, mankomunitatekoak zein Berrizko Udalekoak. Gizarte-langile horiek, aurretiazko hitzordu bat ezarrita, lehenengo esku-hartzea/balorazioa egingo dute biktimarekin, ondoren zerbitzua bideratzeko. Zerbitzua Bilbon eskatzen dutenek orain arte bezala egin ahal izango dute. Une honetan mankomunitatutako Gizarte Zerbitzuen barruan 10 udalerrik parte hartzen dute: Abadiñok, Atxondok, Durangok, Elorriok, Garaik, Iurretak, Izurtzak, Mañariak, Otxandiok eta Zaldibarrek; 54.144 pertsonak jasotzen dute arreta. Apirilaren 1etik aurrera abian jarri den zerbitzu berri honetan, 58.973 pertsonari eskainiko zaie arreta, Berrizko udalerrria ere sartzen da eta (Estatistikako Institutu Nazionalaren biztanleria-datuak 2013/12/31n).

Arreta psikologikoa Durangaldean 2007tik

Mankomunitatean, 2007tik hona arreta psikologikoa eskaintzen zaie genero-indarkeria jasaten dutenei; helburu nagusietako bat emakumeei arreta egokia ematea da. Arreta eman zaien emakumeen erdia baino gehiago 30 eta 50 urte bitartekoa izan da.

2013an genero-indarkeriako 13 kasu berri artatu dira.

Beste alde batetik, Durangaldeko 4 udalerrik (Abadiñok, Berrizek, Durangok eta Elorriok) 2011tik Durangaldeko Erakunde arteko Koordinazio Protokoloa daukate, indarkeria sexistaren biktima diren emakumeentzako arreta hobetzeko. Protokolo horretan, aipatutako udalek euren berdintasun-zerbitzuekin, Osakidetzak eta Ertzaintzak parte hartzeaz gain, mankomunitateak ere parte hartzen du, bere gizarte-zerbitzuen bitartez; hori guztia idazkari tekniko batek koordinatuta.

Mankomunitateak eta bertako udalek apustu handia egin dute gizonen eta emakumeen arteko berdintasunik ezaren biktima direnei zerbitzu profesionala eta kalitatekoa emateko behar diren baliabideak eta tresnak edukitzeko. Izan ere, denok batera lan egin behar dugu indarkeria hori gizartetik ezabatzeko.

2013 eta 2014 artean 1.333 kasu Bizkaian

2013. urtean, 1.164 pertsona artatu ziren zerbitzuan. Tratatu diren kasu guztietatik, 625 pertsona lehen aldiz bertaratu ziren, eta 539, berriz, beste urte batzuetan ere etorri ziren.

2014ko lehen hiruhilekoan 169 kasu berri artatu dira: tratatu txarren 132 biktima, sexu erasoan 7 kasu, zeharkako 8 biktima, 10 adingabe eta 12 erasotzaile.

2013. urtean eta 2014an orain arte guztira 1.333 kasu tratatu ditu Tratu Txarren eta Sexu Erasoen Kasuetan Familiar Esku Hartzeko Laguntza Psikologikoko Programak; horietan, emakumeen, gizonezkoen eta adingabeen kontrako sexu erasoetatik eta tratu txarretatik eratorritako ondorioak landu dira eta jokabide biolentoak aldatzeko lan egin da.

Mankomunitate eta populazio taldeei dagokienez, 2014ko lehen hiruhilekoko datuak honako hauek dira:

Bilbo: 151 pertsona bertaratu dira lehen aldiz; horietatik 116 tratu txarren biktima izan dira, 6 sexu erasoen biktima, 8 zeharkako biktima, 9 adingabeak izan dira eta erasotzaileak, ostera, 12.

Lea-Artibaiko Amankomunazgoa: 6 pertsona lehen aldiz bertaratu dira, 5 tratu txarren biktima izan dira, eta adingabe bat ere bertaratu da.

Balmaseda eta Enkarterriko Mankomunitatea: 7 pertsona lehen aldiz bertaratu dira tarte horretan: tratu txarren 6 biktima eta sexu erasoen biktima bat.

Nerbioi eskualdea: Tratu txarren bost biktima

1992. urtetik zerbitzua ematen

Tratu Txarren eta Sexu Erasoen Kasuetan Familiar Esku Hartzeko Laguntza Psikologikoko Programa 1992ko maiatzaren 4an jarri zen abian, Bilbon. 1995eko maiatzaren 21ean gizonezko erasotzaileentzako arreta psikologikoa ere sartu zen programan, eta tratu txarren edota sexu erasoen biktima adingabeei zuzendutakoa, ostera, 1998. urtetik aurrera ezarri zen.

Arazo horren gaineko sentsibilizazioak eta eskariak izandako gorakadari erantzuteko, 1992. urtetik kontratatutako ordu kopuruak etengabe eta modu mailakatuan egin du gora, eta, hortaz, baita profesionalen kopuruak ere. Horren haritik, Gizarte Ekintzako Foru Sailak zerbitzua deszentralizatzeko prozesua jarri zuen martxan 2006. urtean, tratu txarren edo sexu erasoen biktima diren emakumeei eta adingabeei zerbitzu espezializatu hori eskuratzea errazte aldera; gaur egun ere prozesu horri eutsi zaio.

Gaur egun 549 ordu ditu esleituta programa honek astero, eta lantaldea 16 psikologok osatzen dute.